

URTARRILA

TAILERRA



EGUN ONA HASTEKO! GO!SALDU

Noiz: Urtarrilaren 27an
Ordua: 16:00-18:00
Nori zuzendua: LH6, DBH1 eta DBH2 mailetako gazteei
Doakoa izango da
Plaza mugatuak

Azken urteotan elikadura ohiturak asko aldatzen ari dira, eta ikusirik ze ondorio izaten ari diren, oso garrantzitsua eta beharrezkoa da heziketa nutrizional egoki bat izatea (batik bat gaztetxoenen artean, etorkizuneko herritarrengan alegia). Hori dela eta, Ekoetxea Azpeitian (Ihena Ingurugiro Etxea Museoa) elikadurari buruzko tailerra antolatu dugu.

OTSAILA

FAMILIA EKINTZA



ZUHAITZ EGUNA

Noiz: Otsailaren 4an
Ordua: 10:30-12:30
Nori zuzendua: familiei
Non: Izarraizko Atea parkearen gunean
Elkartzeko lekua: Esklabak

Herritarrak eta, bereziki, haur eta gazteak zuhaitzen eta basoen garrantziaren jabe egin eta haien zaintza eta babesean euren parte hartzea sustatzeko, zuhaitz landaketa antolatu dugu.

MARTXOA

FAMILIA EKINTZA



URAREN TAILERRA

Noiz: Martxoaren 18an
Ordua: 10:00-13:30
Nori zuzendua: LH3tik-DBH2ra mailetako gazteei
Doakoa izango da
Plaza mugatuak

Martxoaren 22an Uraren Nazioarteko Eguna ospatuko da ur gezaren garrantziaz ohartarazi eta errekurtsio horren kudeaketa jasangarria sustatzeko asmoz. Mundu egun hau kontuan izanda, Ekoetxea Azpeitian (Ihena Ingurugiro Etxea Museoa) uraren inguruko jolasak antolatu ditugu.

XAGUXATAR

p a r k e a



Ezagutu Izarraitz inguruan dagoen xaguxatarren espezie-aniztasuna: haien ezaugarriak, ohiturak eta habitata. Jolastu "Xaguxatarren horman", "Enbor bertikaleen lorategian", "Labirintoan", "Intsektuen hotelean"...



Zatoka ezagutzera!!!



URTARRILA-OTSAILA-MARTXOA

EKINTZAK

Ekologia, ingurumen eta jasangarritasun baloreetan hezten